



# INGURUMEN IKUSKAPENeko

## JARDUEREN MEMORIA

### URTEA: 2016

Ingurumen Administrazioaren Zuzendaritza  
Administrazio-unitatea: Ingurumen Ikuskapena

#### Aurkibidea

1. Sarrera.....	2
2. Proiektuen zerrenda .....	2
2.1.- Proiektua: IPPC jardueren 2016ko jarraipen-ikuskapena.....	2
2.2.- Proiektua: IPPC ez diren enpresen ikuskapena.....	6
2.3.- Proiektua: AKDJen eta ILEen ikuskapena .....	7
2.4.- Hondakin-kudeaketaren kontrola .....	7
2.5.- Hondakinen lekualdaketa.....	9
2.6.- Zepa siderurgiko eta metalurgikoen kudeaketa.....	9
2.7.- Lurzoruak. Jarduketa baimenduak .....	10
2.8.- Jarduera bertan behera utzi osteko hondakin arriskutsuen eta materialen kudeaketa .....	10
2.9.- Pasaiaiko badiaren berroneratzea sustatzea .....	11
2.10.- Ohartarazpenen eta programatu gabeko bisiten kudeaketa. ....	11
3. Emaitzak .....	14
4. Ondorioak .....	15

2016ko urtarrila



## 1. Sarrera

Memoria honetan, Eusko Jaurlaritzako Ingurumen Sailburuordetzaren Ingurumen Ikuskapen Zerbitzuak 2016ko ekitaldirako zehaztutako Ingurumen Ikuskapen eta Kontrolerako Programari lotuta egindako jarduerak deskribatzen dira.

## 2. Proiektuen zerrenda

Jarraian, 2016ko ekitaldian gauzatutako ikuskapen-proiektuen zerrenda, horietako bakoitzean egindako jarduerak eta lortutako emaitzak jasotzen dira, baita emaitza horiek aztertzetik ateratako ondorio zehatzak ere.

### *2.1.- Proiektua: IPPC jardueren 2016ko jarraipen-ikuskapena.*

Erreferentzia: 2016-01

#### **2.1.1.- Jarduerak**

216 ikuskapen egin dira; horietatik 106 *in situ* egin dira, enpresaren instalazioetan, eta 110etan dokumentazioa aztertu da, zehazki, ingurumen-zaintzarako planak eta errekerimenduei emandako erantzunak. Enpresa horietatik lau 815/2013 EDa aplikatu ondoren sartutako enpresa berriak dira.

Programatutako enpresetatik bost itxita edo jardueren aldi baterako etenaldian zeuden.

Ikuskatu beharreko enpresetatik 21ek urtean behingo ikuskapena egin behar zuten, aplikatu beharreko araudian xedatzen denarekin bat. Ikuskapenaren ondoren, 11 enpresak bakarrik egin beharko dute urtean behingo ikuskapena, operadorearen irizpideak nabarmen hobetu baitira (kudeaketa-sistema hobetzea eta ez-betetzeak murriztea), bi urtean behingoa 34 enpresak eta hiru urtean behingoa gainerako 61 enpresek.

Ikuskapenari zegozkion aktak egin dira eta enpresei horiekin lotutako txostenak bidali zaizkie, baita beharrezkoa zen kasuetan, errekerimenduak ere.

Era berean, Sailaren webgunean, ikuskatutako enpresen ikuskapen-txostenak argitaratu dira, IPPC enpresentzat indarrean dagoen araudiari jarraituz.

#### **2.1.2.- Ondorioak**

Programazioaren % 100 bete da, eta ikuskapena enpresek ingurumen-esparruan duten arriskuaren arabera egin da.

Enpresen betetze-mailari dagokionez, aurreko ekitaldian bezala, portzentaje-ratioa handia izan da: % 95ekoa. Era berean, ikuskatu diren enpresetatik 6k (% 5ek) betetze-maila txikia edo ertain-txikia izan dute.

Arriskuen ebaluazioari dagokionez, nabarmen jaitsi da urtean behingo ikuskapen-aldizkakotasuna (arrisku-kategoria) duten arrisku-indize handiko enpresen kopurua: 21etik 11ra.




Azkenik, nabarmentzekoa da egindako ikuskapenetan ez dela ez-betetze esanguratsurik edo larririk antzeman; gehienak (% 90) ez-esanguratsu gisa tipifikatutakoak izan dira eta % 10 neurrizko ez-betetze gisa.

Proiektu honi dagokionez, gogorarazi behar da IPPC instalazioen ikuskapena kutsaduraren prebentzio eta kontrol integratuen araudian erregulatzen dela. Araudi horretan, era berean, ikuskapen-bisiten aldizkakotasuna ere ezartzen da jarduera bakoitzarekin loturiko ingurumen-arriskuaren arabera. Ondorioz, proiektu hau urtero jaso behar da dagokion programan.

### IPPC jardueren ikuskapen-proiektua - Datu orokorrak


Ikuskatutako jarduera kop.	Ez-betetzerik gabe	Ez-betetzereen bat izan da
106	33	73



### Ikuskapenetako ez-betetzeen kop./mota

GUZTIRA	Ez-betetze mota			
	Garrantzi gutxikoa	Neurrizkoa	Esanguratsua	Larria
233	217	16	0	0

## MOTA BAKOITZEKO EZ-BETETZEEN KOP.




Ikuskatutako enpresetan detektatutako mota bakoitzeko ez-betetzeen kopurua agertzen da, ez-betetzearen larritasunaren arabera zehaztuta.

## Arrisku-indizearen datuak

GUZTIRA	1. AI	2. AI	3. AI	4. AI	5. AI
106	16	45	34	10	1


## ARRISKU-INDIZEA



Enpresen kopurua adierazten da arrisku motaren arabera: gutxieneko AI=1 eta gehieneko AI=5

### Arrisku-kategoriaren datuak

GUZTIRA	1	2	3
106	11	34	61




Arriskuaren arabera ikuskapen-aldizkakotasuna egindako azken ikuskapenaren ondoren zehaztu zaien enpresen kopurua adierazten da. AK=1 urtean behingo aldizkakotasuna, AK=2 bi urtean behingoa eta AK=3 hiru urtean behingoa.

### Betetze-maila

GUZTIRA	BM handia	BM ertain-handia	BM ertaina	BM ertain-txikia	BM txikia
106	58	22	19	6	1

**BETETZE-MAILA**



Ikuskatutako enpresen kopurua adierazten da, haien betetze-mailaren arabera



## 2.2.- Proiektua: IPPC ez diren enpresen ikuskapena

Erreferentzia: 2016-02

### 2.2.1.- Jarduerak

2015eko ekitaldiko ikuskapenean betetze-maila txikia eta ertain-txikia izan zuten enpresei errekerimendu bat bidali zitzaien eta, horien erantzuna ebaluatzean ikusi denez, %90ek desbideratzeak zuzendu dituztela frogatu dute. Errekerimenduari erantzun ez dioten gainerako enpresak edo, IZren ustez egiaztatu beharreko ekintza-plan bat aurkeztu dutenak, 2017ko ikuskapen-programara bideratu dira.

Proiektu honetan, IPPC ez diren enpresetan 160 ikuskapen egin dira. Enpresa horiek hainbat industria-sektoretakoak dira eta haien kutsadura-potentziala askotarikoa da. Ondorioz, ingurumen-legeriaren betetze-maila honako hau izan da: %56an betetze-maila handia eta ertain-handia, %21ean betetze-maila ertaina, eta %23an betetze-maila ertain-txikia edo txikia. Ez-betetzeak dituzten enpresa guztiei dagokien errekerimendua igorri zaie. Guztira 94 errekerimendu egin dira.


### 2.2.2.- Ondorioak

Enpresa-talde honetan eginiko ikuskapenean, betetze-maila, oro har, onargarria dela ikusi da, kontuan hartuta hondakin arriskutsuen eta airearen bektorean askotariko kutsadura-potentzialak dituzten jarduera-sektoreak aukeratu direla.

Hurrengo ekitaldirako, igorritako errekerimenduen jarraipen-lana antolatu da; bereziki, betetze-maila txikia eta ertain-txikia izan duten enpresena. Ondorengo ekitaldietan ikuskapen-dinamika honekin jarraitzea proposatu da.

### IPPIC ez diren enpresetan ikuskapenak egin ondorengo betetze-mailari buruzko datuak

GUZTIRA	BM HANDIA	BM ERTAIN-HANDIA	BM ERTAINA	BM ERTAIN-TXIKIA	BM TXIKIA
160	63	27	34	27	9





## **2.3.- Proiektua: AKDJen eta ILEen ikuskapena**

Erreferentzia: 2016-03

### **2.3.1. Jarduketak**

Aurreko urteetako ikuskapenetan, EAEn atmosferaren esparruan jarduten duten ILEak kontrolatu ziren; aurreko, berriz, isurketen kontrolaren arloan gehien jarduten duten ILEen ikuskapena lehenetsi da. Ikuskapenak ILEari eta atmosferako isurketak neurtu zaizkion enpresari aurrez abisatu gabe egin dira. Bi ikuskapen egin dira guztira, eta emaitza ona izan da.

AKDJe dagokienez, dauden datu-baseei buruzko azterketa bukatu da eta enpresen zerrenda batzuk egin dira. Zerrenda horiek IPPC ez diren enpresen ikuskapenak planifikatzeko oinarri gisa erabili dira, enpresa horien isurpen-fokuak indarreko legedira egokitzea irizpide nagusizat hartuz.

### **2.3.2. Ondorioak**

ILEek hainbat ingurumen-esparrutan egiten dituzten kontrolen emaitza bermatzeko asmoz Administrazioak ILE horien gainean egiten duen kontrola positiboa dela ikusi da, egindako ikuskapenetan lortu den emaitza ona kontuan hartuta. Hurrengo ekitaldian sistema berberari eutsi nahi zaio.

## **2.4.- Hondakin-kudeaketaren kontrola**

Erreferentzia: 2016-04

### **2.4.1. Jarduketak**

*Hondakin Geldoen Zabortegei Proiektua.*

2016ko ekitaldian, EAEn deklaraturik dauden 6 kokalekuetan ikuskatze-bisitak egin dira, haien legezko egoera ikusteko.

Lortutako emaitzak ikusita, Sailburuordetzako hainbat zerbitzuekin koordinatutako jarduketa-proposamen bat egin da.

*Eraikuntzako eta Eraispenerako Hondakinak (EEH) Kontrolatzeko Proiektua*

2016ko ekitaldian, ikuskapen-lanerako barne-prozedurak osatu dira. Beste alde batetik, EAEn baimendutako instalazio mugikorren zerrenda sortu da, kontrol-jarduerak egiteari begira. Instalazio mugikorrek dituzten kokalekuetan eta EEHak instalazio mugikorren bitartez tratatzeko baimena duten enpresetan lehenengo ikuskapenak egiten hasi dira, betetze-maila baloratzeko. IPPC instalazioetan egiten diren hondakinak tratatzeko lan batzuk, Ingurumen-ebaluazioari buruzko abenduaren 9ko 21/2013 Legearen II. eranskineko (ingurumen-ebaluazio sinplifikatua behar duten proiektuei buruzkoa) 9. taldean sar daitezkeenak, arautzeari ekin zaio. Azkenik, EEHen inguruko salaketei erantzun zehatzak eman zaizkie.





### *Zatikagailuen Proiektua*

4 instalazio nagusiak ikuskatu eta horietan hondakinak onartzeko, mugaz gaindiko hondakinen lekualdatzeak izapidetzeko eta igorpen atmosferikoak kontrolatzeko dauden protokoloak aztertu dira. Jarraipen-ikuskapenekin batera, gaueko zaintza-jarduerak egin dira. Instalazioetako batean zatikatze-prozesuan sortutako igorpenak kontrolatu dira, aurretik abisatu gabe, eta beste instalazio batean ILEak –ikuskatutako enpresak kontratatua– egindako kontrolek exijitu daitezkeen baldintzak betetzen dituztela ikusi da.

### *Tresna Elektriko Eta Elektronikoen Hondakinen Proiektua (TEEH)*

Proiektu hori zeharkakoa da. Helburua da Sailburuordetzak hondakin arriskutsuen eta ez-arriskutsuen kudeatzaile izateko ematen dituen baimenak 110/2015 Errege Dekretura egokitzea. Zehazki, zerbitzu eskudunek eskatutako 5 ikuskapen egin dira.

### *EElen Kudeaketa Kontrolatzeko Proiektua*

Proiektu honen helburua da kontrolatzea operazio horretarako baimenik ez duten kudeatzaileek egiten duten EElen kudeaketa, ikuskapen-jardueren eta ingurumen-diziplinaren bidez. EEIak tratatzeko balizko legez kanpoko zentroei buruzko informazioa biltzen jarraitu da.

## **2.4.2. Ondorioak**

*Hondakin Geldoen Zabortegi Proiektua.* Programazioaren % 50 bete da. 2017ko ekitaldian proiektu horrekin aurrera jarraitu beharko da, deklaraturako hondakin geldoen legez kanpoko zabortegiak desagerrarazteko definitutako jarduerak bukatzearen.

*Eraikuntzako eta Eraispeneko Hondakinak Kontrolatzeko Proiektua (EEH)* Programazioaren % 100 bete da. Kontuan hartuta helburua EEHen kudeaketa kontrolatzeko jarduketa-plana zehaztea zela, 2016ko ekitaldian jarduketa-plan zehatzak definitu eta abiatu dira.

*Zatikagailuen Proiektua.* Programazioaren % 100 bete da. Ez da ez-betetze esanguratsurik antzeman hondakinen onarpenarekin, mugaz gaindiko hondakinen izapidetzearekin eta igorpen atmosferikoekin lotuta.

*Tresna Elektriko Eta Elektronikoen Hondakinen Proiektua (TEEH).* Programazioaren % 100 bete da. Zerbitzu eskudunek kudeatzaile-baimenak 110/2015 EDra egokitze eskatu dituzten ikuskapen guztiak egin ditu Ikuskapen Zerbitzuak.

*EElen Kudeaketa Kontrolatzeko Proiektua.* Programazioaren % 10 bete da. 2017an proiektu hau gauzatu behar den birplanteatzea beharrezkotzat jotzen da.





## **2.5.- Hondakinen lekualdaketa**

Erreferentzia: 2016-05

### **2.5.1. Jarduketak**

2016ko ekitaldian, hiru ildotako jarduerak egin dira.

Lehena. Ingurumen Sailburuordetzarentzat plan-zirriborro bat landu da, 2017ko programa eta prozedura propioekin batera. Horrez gain, Ministerioarekin eta beste autonomia-erkidego batzuekin elkarlana egin da, autonomia-erkidego guztietarako plan- eta programa-eredu orokor bat prestatzeko.

Bigarrena. Teknikariek beste proiektu batzuen esparruan egiten dituzten ikuskapenetan hondakinen lekualdaketa buruzko informazioa lortzeko prozedura bat egituratu da. Zehazki, 112 IPPC enpresaren mugaz gaindiko hondakinen lekualdaketa buruzko informazioa lortu da. Enpresek hondakinen lekualdaketa egiten dituzten edo egiteko asmoa duten kasuetan, Hondakinen Mugaz gaindiko Garraioari buruzko Informazio Zirkularrak entregatu dira.

Hirugarrena. Bilboko portuan hiru edukiontzi ikuskatu dira eta Galiziako Xuntako eta Portugalgo teknikariek Portugalgo mugan batera egindako ikuskapenean lagundu da.

### **2.5.2. Ondorioak**

Programazioaren % 90 bete da. Bai Plana bai Programa aurkeztea eta onartzea falta da. Beste alde batetik, 2017ko ekitaldian, beste proiektu batzuekin lotutako ikuskapenetan hondakinak lekualdatzen dituzten enpresei buruzko informazioa jasotzen jarraituko da. Azkenik, 2017ko ekitaldian, instalazioetan, portuetan eta errepideetan ikuskapen espezifikoak egingo dira eta 2017ko Programan zehaztuko dira.

## **2.6.- Zepa siderurgiko eta metalurgikoen kudeaketa**

Erreferentzia: 2016-06

### **2.6.1. Jarduketak**

Kudeatzaileei buruzko datu fidagarriak biltzen bukatu da, osatu gabe zeudelako eta akatsak zituztelako. Erebilari buruzko dokumenturik eza.

Kudeatzaile-balorizatzaileen tratamendu-instalazioetan zepak 34/2003 Dekretuari jarraituz balorizatzen diren aztertu da, baita ekoizpen-instalazioetan (altzairutegiak) horien inguruan egiten den erregistroa ere.

Dokumentazioa aztertu ondoren, zepa siderurgikoen erabiltzaileei 35 errekerimendu egin zaizkie, benetan zer erabilera ematen dieten zehazteko.

Era berean, kudeatzaile-balorizatzaileen tratamendu-zentroetako zepen hondakin kopuru handi bat Burgos probintziara eraman eta han erabili dela ikusi da. Gaztela eta Leongo Juntari idazki bat bidali zaio, horren berri emateko, kopurua eta helmuga adierazita.

16 ikuskapen-bisita egin dira: 9 altzairutegietan eta 7 kudeatzaile-balorizatzaileei. Altzairutegi bat eta kudeatzaile/balorizatzaile bat falta dira ikuskatze-bisitak bukatzeko.



### **2.6.2. Ondorioak**

Zepen hondakinen (zuriak eta beltzak) % 65-70 erabilera zuzenetara bideratzen da, zehazki, hormigoizko blokeak egitera (portua) eta zementu-fabriketara.

Gainerakoa, salbuespen batzuk kenduta, amaierako errodatze-geruzarik ez duten ibilgailuetarako basoko pistetan erabili da, ekarpen-material gisa.

## ***2.7.- Lurzoruak. Jarduketa baimenduak***

Erreferentzia: 2016-07

### **2.7.1. Jarduketak**

Proiektu honetako jarduketak mugatuak izan dira eta ikuskapenean aztertu beharreko alderdiak biltzen dituzten formularioak prestatzera bideratuak.

### **2.7.2. Ondorioak**

Proiektu honekin lotutako ikuskapenak hurrengo ekitaldian jorratuko dira.

## ***2.8.- Jarduera bertan behera utzi osteko hondakin arriskutsuen eta materialen kudeaketa***

Erreferentzia: 2016-08

### **2.8.1. Jarduketak**

Ingurumen-arrisku handiko 4 enpresa bisitatu dira. Era berean, 2 errekerimendu igorri dira eta ez da beharrezkoa izan inolako ekintza subsidiariorik egitea hondakinak kontrolatzeko eta kudeatzeko.

### **2.8.2. Ondorioak**

Oro har, ezarritako helburuak bete dira, baina arrisku handieneko eta konkurtso-prozeduran likidezia falta den kasuetan egoera zuzentzeko zailtasun handiagoak daudela ikusi da.



## ***2.9.- Pasaiako badiaren berroneratzea sustatzea***

Erreferentzia: 2016-09

### **2.9.1. Jarduketak**

Erakundeak koordinatu dira, mahai teknikoaren eta mahai politikoaren sei hilean behingo bileretan izateko.

Pasaiako Portuan egindako jardueri dagokienez, hainbat erakundetari jasotako kexak sartu dira. 2016an, guztira, 19 kexa jaso dira, 2015ean 29 baino gutxiago.

Mahai teknikoaren bileren hasieran antzemandako 43 ekintzetatik 18 gauzatu dira, 22 jarri abian, eta azkenik, horietako 3 bakarrik daude abiatu gabe.

### **2.9.2. Ondorioak**

Erakundeak koordinatzeko egindako lana garrantzitsua da. Aurrerapen handia egin da alderdi hauetan: saneamenduan, eta, partikulariki, Portuko Agintaritzaren eraikinak biltodira konektatzen, gainezkabideen garbiketan eta Txingurri errekarako balizko isurien ezagutzan. Añarbeko Urak erakundeak sailarteko mahaian izan duen partaidetza oso positiboki baloratu da.

Pasai Donibaneko saneamendua gauzatzeko proiektua idaztea oso garrantzitsua da eta egiten ari da, planteatu beharreko irtenbidearen inguruko desadostasunak gainditu ondoren. Horretarako, obra gauzatzeko eta ondoren kudeatu eta mantentzeko zailtasunak aintzat hartu dira.

## ***2.10.- Ohartarazpenen eta programatu gabeko bisiten kudeaketa.***

Erreferentzia: 2016-10

### **2.10.1. Jarduketak**

EAEko ingurumeneari eragina duten ohartarazpen eta larrialdiei erantzun zaie, urteko 365 egunetan, 24 orduz.

Ingurumen Ikuskapen Zerbitzuko teknikariek kontratatutako bi laguntza-zerbitzu teknikoaren jarduerak bideratu eta koordinatu dute.

Guztira, 553 ohartarazpen kudeatu dira; horietako 78ren kasuan, teknikari batek eragindako ingurunera joan behar izan du.




Lurralde historikoaren arabera, banaketa honako hau izan da:

	ARABA	BIZKAIA	GIPUZKOA
OHARTARAZPEN KOP.	75	406	72



Eragindako inguruaren arabera, banaketa honako hau izan da:


	ARABA	BIZKAIA	GIPUZKOA
AIREA	27	280	36
NATURA-INGURUNEA	22	43	15
LURZORUA	17	38	13
URA	9	45	8





Sortutako ingurumen-eraginaren arabera, banaketa honako hau izan da:

	Errepideko istripua	Airera eginiko igorpenak	Sutea	Usainak	Hondakin arriskutsuak	Zarata	Lurzorua	Uretarako isuria	Beste batzuk
ARABA	2	22	4	5	13	0	17	9	3
BIZKAIA	9	104	5	160	14	16	38	45	15
GIPUZKOA	0	15	5	20	2	1	13	8	8



### 2.10.2.- Ondorioak

2016an ingurumen-eragina zuten ohartarazpen eta kexa guztiei eman zaie erantzuna.

Arruntzat jo da Araban eta Gipuzkoan egindako ohartarazpen kopurua eta ezaugarriak. Aipatzekoa da kexetako asko Bizkaian egin direla eta airearekin lotuta daudela; zehazki, airerako igorpenekin eta usainekin, batez ere, eta neurri txikiagoan, zaratarekin. Analisia egin ostean, egiaztatu da batez ere industria-jardueraren gune txiki batetik datozela. Jarduera horiek udalerrri hauetan daude banatuta: Abanto-Zierbena (23 ohartarazpen), Muskiz (65 ohartarazpen), Ortuella (43 ohartarazpen), Trapagaran (39 ohartarazpen) eta Barakaldo (11 ohartarazpen).

IPPCren jarraipen-ikuskapeneko proiektuen barruan, segimendu berezia ari zaie egiten potentzialki ohartarazpen eta kexa gehien sor dezaketen enpresei.



### 3. Emaitzak

#### Proiektuak

Jarraian, proiektu bakoitzean ikuskatuko den jarduera kopurua adierazten da, baita horietako bakoitzean definitutako ekintza-planaren betetze-mailaren ehunekoa ere.

Proiektuaren erref.	Programatutako jarduerak	Eginda (%)
2016-01	106	% 100
2016-02	160	% 100
2014-03	2	% 50
2014-04	Kualitatiboak	% 100
2014-05	Kualitatiboak	% 100
2014-06	Kualitatiboak	% 100
2014-07	10	% 0
2014-08	Kualitatiboak	% 100
2014-09	Kualitatiboak	% 78
2014-10	Ez da aplikatzen	% 100

#### Proiektu eta ikuskapen guztiak

Jarraian, proiektu bakoitzerako ikuskatu diren enpresen kopurua dago adierazita, bai eta egindako ikuskapenen kopuru osoa ere.

Proiektuaren erref.	Ikuskatutako jarduera kop.	Egindako ikuskapen kop.
2014-01	106	216
2014-02	160	170
2014-03	2	2
2014-04	15	15
2014-05	3	3
2014-06	16	16
2014-07	0	0
2014-08	4	4
2014-09	0	0
2014-10	0	78
Guztira	304	504



## Jarduera guztiak

Proiektu kop.	Ikuskatutako jarduera kop.	Egindako ikuskapen kop.	Ikuskapen-bisiten kop.	Dokumentuen ikuskapen kop.	Zaintzako ikuskapen kop.
10	304	504	382	110	19

## 4. Ondorioak

Ezarritako programazioa bete da, eta proiektuen ikuskapen ia guztiak egin dira.

Lehentasunezko proiektua IPPC instalazioen segimendua izan da berriz ere, eta gainerako proiektuak ikuskapen-unitatean eskuragarri zeuden baliabideen arabera gauzatu dira. Nabarmendu behar da proiektu honetan hobekuntza ikusi dela, enpresen betetze-maila igo eta arrisku larrienak murriztu egin baitira, ingurumen-kudeaketa hobetzearen eta ingurumen-baimen integratuaren arau-haustek murriztu izanaren ondorioz.

IPPC ez diren jardueren ikuskapen-proiektuan, jarduerak egiaztatze laguntza-zerbitzu teknikoei esker, ikuskapenaren lehen fasea amaitu da, eta, horren ostean, egindako errekerimenduen jarraipena egingo da, betetze-maila ona izatea lortu arte. Proiektuetatik beste asko ere urte anitzekoak dira eta, horrenbestez, datozen urteetan jarraipena izango dute.